

# Diskoak

IKER BARANDIARAN



Laino guztien gainetik,  
sasi guztien azpitik.  
Gatibu.  
Baga Biga.  
Iraupena: 46'35".  
15,95 euro.

## Zuzenekoan zoramenetik pausatuago eta ñabardura gehiagorekin

ASKOTAN ESAN OHI DA talde baten ibilbideko hirugarren diskoa dela benetako proba, taldearen onena erakutsi beharko lukeena. Gernikar hauek ez dira berriak "negozio" honetan eta aurretik ere ibiliak dira konposatzen, interpretatzen eta zuzenean jotzen. Seguruenik, horregatik guztiagatik disko heldua eta landua egin dute: lan honetan soinu dotore, garbi eta ñabarduraz betetakoa lortzeaz gain, beste *tempo*

bat lortu dute. Ezagun da Gatibuk konzertu bizi eta izerditsiak egiten dituela –eta hala jarraitzen du!–, baina diskoan bestelako emaitza bilatu eta lortu dute. Kantuek taldearen marka bereizgarria dute, baina rock izerditsua, bluesa, heavya, rock urbanoa, erritmo elektronikoak eta ukitu latino zein flamenkoak batu dituzte. Hitzetan, errealitatearen eta bizi-nahiaren urgertzia, jakina.

### Alex Sardui - Gatibu

## «Rock-and-rolla maitale on baten modukoa da: asko ematen dizu, baina ez dakizu noiz arte»

Sexua, desioa... oso presente daude zuen hitzetan. Horiek dira benetan jendea arduratzen duten gauzak?

Gauza antzekoek arduratzen gaituzte; hor daude desioak, ametsak, egin nahi ditugun gauzak... Sexuarekin bide onean goaz: galarazita egoetik modu askean bizi dugu orain, egunerokotasunean.

Nolatan aukeratu zenuen *Chitty Chitty Bang Bang* film musikal horren izena?

Gerora jakin dut film bat dela. Kantuaren melodia eginda neukan

eta halako batean soinu hori burura etorri zitzaidan; hortik aurrera, beste guztia idatzi nuen. Agian subkontzientean neukan film hori ikusi izana.

Inoiz Serge Gainsbourgekin konpara zaituzte? Emakumeei halako omenaldiak egiten dizkiezula-eta...

[Barre]. Eskertzen da halako konparaketa... Inoiz neskek esan didate emakumeek ulertzeko moduko kantuek idazten ditudala. Egia esanda, eskolan eta abesbatzan neska artean

ibili nintzen beti; eta baliteke hor zer-bait ikasi izana.

"Hauxe da rock-and-rolla, hau da nire bizixe, kezko promesen joan etorri bet". Joan-etorria bada, badaramazue denbora bat, ezta? Zer eman dizue rock-and-rollak?

Joan-etorriak beti egon dira, hori da rock-and-rolla. Horrek ematen dio bizitzari intentsitatea. Rock-and-rollak asko ematen digu, horregatik jarraitzen dugu horretan. Maitale on baten modukoa da: asko ematen dizu, baina ez dakizu noiz arte.

Hitzetan askotan ageri dira "sua", "ura", "trumoi", "laino", "udaberrixe", "haizie"... Zeu zara rockaren Pello Zabala, eguraldi gizona?

Euskaldunok beti egon gara naturari begira. Aita bertsolaria daukat, Enbeitatarrak familia dira, eta tradizioari eutsi egin behar zaio. Eta, jakina, nire errespetu guztia Zabalari. Produkzio galanta dauka diskoak. Detaile eta ñabardura asko daukate kantuek.

Eskerrik asko. Soinua zaindu egin dugu, zuzenekoa eta diskoa bereizteko. Modu berean, ideiak sinpletu egin ditugu. ■

